



Euskal Bizikleta



kutxa

Euskal Bizikleta arrakasta osoz amaitu zen joan den igandean, Piotr Ugrumoven garaipenarekin. Ohi den moduan, Arrateko Igoerak eman zion amaiera probari, eta iaz bezalaxe Chioccioli izan

zen garaile. Letoniako txirrindulari profesional bakarrak liderraren maillot urdinari eutsi ahal izan zion. Santi Crespo altsasuarra izan zen lehen euskal txirrindularia, 10. tokian sailkatuta.

Ugrumov izarren multzoan bete-betean

Giroan bigarren izan ondoren, Euskal Bizikleta nagusitasunez irabazi du letoniarrak

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA


Maila handiko gizonak izan dira aurten Euskal Bizikletan, eta espero bezala ikuskizunik onena eskaini dute Euskal Herriko errepideetan zehar korritu diren bost etapetan. Piotr Ugrumov, Gianni Bugno, Franco Chioccioli eta neurri txikiagoan Breukink, Zulle edo Delgado bezalako txirrindulariak ziren garaipena lortzeko faborito nagusiak.

Azkenean, faboritoen artean ere alde nabariak izan ziren. Argi eta garbi Giroan ibilitako txirrindulariak izan ziren nagusi, ohi den moduan. Piotr Ugrumov bi aldiz bigarren sailkatu zen Euskal Bizikletan, Seurrekin korritzen zuenean. Beti, ordea, bera baino gizon indartsuagoren bat aurkitzen zuen. Aurten badirudi gauzak aldatu egin direla letoniarrentzat. Italian korritzeak mentalitatea aldatzea ere eragin dio berari, eta emaitzak hortxe daude. Bigarren Giroan Indurainen atzetik, eta astebete beranduago Euskal Bizikletan jaun eta jabe. Ate handitik sartu da, merizimendu osoz gainera, izarren multzoan. Hala ere, zoritxarrez ez dugu Tourrean ikusterik izango. Sasoi onean dago, baina atsedeen hartuko du. «Denboraldia Giroa ahalik eta sasoirik onenean egin asmoz prestatu genuen, ez nago orain Tourrean egoteko mentalizatuta. Tourra oso karrera berezia da, gogorra. Ez bazaude egoerarik onenean, hobe ez joatea. Orain atsedeen hartuko dut, eta gero denboraldia amaitzeko Munduko Kopako probak eta Munduko Txapelketa prestatuko ditut».

Gianni Bugno eta Franco Chioccioli hortxe ibili dira, Giroan eginiko lan kaskarra ahaztu asmoz. Azkenean, garaipena ezin izan dute lortu, baina gutxienez etapa bana eramanez. Hurrengo probei begira oso garantzitsua izan daiteke.

CABESTANY Argi ze-
EUSKAL ORDEZKARI goen
ONENA Euskal

Bizikleta irabaztea ezinezkoa izango zela. Hala ere, euskal or-



Azken bi ediziotan bigarren izan ondoren, garaipena lortu ahal izan du Ugrumovek Euskal Bizikletan. GILLENEA

dezkariek espero bezalako lana egin dutela esan daiteke. Pello Ruiz Cabestanyk hirugarren etapa irabazi zuen —Seguran amaitu zena—, eta aurreko tokietan ibili da behin eta berriz. Santi Crespo nafarraren lana ere aipatu behar, sailkapenean lehen euskal txirrindularia izatea lortu baitu, profesionaletan zeresanik eman

duten gizon askoren aurretik. Berak ziurtatu zuenez, «niretzatko hau ametsa zen. Asko kostatu zait profesionaletara moldatzea, baina badirudi pixkanaka lortzen ari naizela».

Crespo, Cabestany, Gaston, Etxabe, Aiarzaguena, Murgialdai eta Juan Antonio Zarrabeitia izan dira proba amaitu duten

euskal ordezkariak.

Euskal Bizikleta handitzen ari da azken ediziotan. Aurrena bost etapako karrera izatea lortu zuen, eta partaidetza hobetu egin zuen. Aurten, Nafarroan sartu da lehengo aldiz, eta datorren edizioan Iparralden amaituko da etapa bat, Miarritzen. Benetako Euskal Bizikleta izateko bidean da.

★ Nire butakatxotik

JUAN LUIS ZABALA

Sinplea eta gogorra

Nire pronostikoak hutsaren hurrengo izan ohi dira eta, ohizkoa denez, igandean egin nuenak ere porrot egin zidan, azkenean Ugrumovek ez baitzuen Arrateko etapa irabazterik lortu. Dena den, Arrateko azken igoera ikusgarria izango zela esatean ez nuen hutsik egin, jakina. Zaila ere ez zen, baina horretan asmatu nuen behinik behin.

Lau gizonen arteko borroka latza ikusi genuen. Bugno eta Chioccioliren erasoak, Della Santaren ahalgina Ugrumov metro batzuk atzerago utzi eta Chioccioli harrapatzean, eta Ugrumoven defentsa sutu, temati, indartsu, gogorra, azken

orduko kontraeraso bortitz eta guztia...

Arrateko azken igoera horrek badu beste ezein karreratako amaierak ez duen emozio puntu berezia, hain gogorra eta hain biluzia delako, hain egiatia eta hain benetakoa... Indarra duena aurrera doa, eta ez duenari ederki igertzen zaio. Sinplea eta gogorra.

Lehen etapan tropelaren lasaitasuna kezkarria iruditzen bazitzaien ere, azkenean polita eta mugitua izan da, oro har, aurten Euskal Bizikleta. Azken aldiko joerari jarraiki, Italiako taldeak izan dira jaun eta jabe, eta gizon bakarra izan da Italiako talde bateko kide izan gabe

ezer irabaztea lortu duena: Neil Stephens. Gainerakoan, Mecair-Ballan, GB-MG eta Gatoradek banatu dute pastel osoa, inori esne-gaina usaintzen ere utzi gabe.

Azkenean indartsuena izan da garaile. Ugrumovek garbi erakutsi du Giroan Indurainen atzetik bigarren izatea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Chiocciolik Arrate oso gustukoa duela erakutsi duen bezala, Della Santak aurrerantzean kontuan hartu beharko dugula, eta Bugnok ez dagoela lur jota, Tourrean garaipenaren bila borrokan aritzeko aukera nekez izango badu ere. Tourra... Zorioneko Tourra... Horra gure hurrengo zita.

Sari Nagusia



kutxa

Sailkapena

Orokorra

1. Ugrumov (Mecair)	22.59.14
2. Chioccioli (GB)	16ra
3. Della Santa (Mapei)	28ra
4. Bugno (Gatorade)	4.22ra
5. Zulle (ONCE)	4.35era
6. Giovannetti (Mapei)	4.59ra
7. Hernandez (Mapei)	5.33ra
8. Vona (GB)	5.54era
9. Garcia (Deport.)	6.11ra
10. Crespo (Amaya)	d.b.
11. Muñoz (Kelme)	d.b.
12. Martin (Amaya)	6.38ra
13. Arroyo (Subaru)	7.02ra
14. Cabestany (Gat.)	7.14era
15. Dufaux (ONCE)	8.44era
16. Rodriguez (Clas)	10.40ra
17. Vanzella (GB)	10.58ra
18. Gaston (Clas)	12.09ra
19. Imboden (Mec.)	12.10era
20. Cadena (Kelme)	12.17ra
21. Van de Laer (Lotto)	d.b.
22. Bruyneel (ONCE)	d.b.
23. Etxabe (Clas)	d.b.
24. Breukink (ONCE)	13.27ra
25. Garcia (Art.)	14.54era
26. Moreno (Kelme)	18.09ra
27. Aiarzag. (ONCE)	18.43ra
28. Tonetti (Mapei)	21.47ra
29. Cubino (Amaya)	23.41era
30. Valbuena (Fest.)	25.22ra
31. Paillet (Fest.)	28.04era
32. Edo (Kelme)	29.27ra
33. Camargo (Art.)	31.44era
34. Murgialdai (Ama)	32.39ra
35. Thijs (Collst.)	33.21era
36. Diaz (Kelme)	34.54era
37. Pellicoli (Gat.)	35.47ra
38. Baguet (Lotto)	35.58ra
39. Pilon (GB)	38.58ra
40. Manuilov (Fest.)	44.08ra
41. Klimov (Deport.)	44.39ra
42. Zarrab. (Amaya)	47.07ra
43. Pascual (Art.)	47.11ra
44. Frattini (Mec.)	49.11ra
45. Petegem (Lotto)	52.00ra
46. De Clercq (Lotto)	58.26ra
47. Carter (Subaru)	1.01.22ra
48. Dubois (Lotto)	1.03.28ra

Mendia

1. Ugrumov (Mecair)	46 puntu
2. Cadena (Kelme)	37
3. Chioccioli (GB)	33
4. Bugno (Gatorade)	25
5. Della Santa (Mapei)	24

Tarteko Helmugak

1. De Clercq (Lotto)	17 puntu
2. Vanzella (GB)	3
3. Tonetti (Mapei)	3
4. Cabestany (Gatorade)	2
5. Hernandez (Mapei)	1

Erregularitatea

1. Ugrumov (Mecair)	62 puntu
2. Vanzella (GB)	51
3. Bugno (Gatorade)	47
4. Chioccioli (GB)	45
5. Della Santa (Mapei)	44

Taldeakako sailkapena

1. Mapei	60.08.42
2. GB-MG	6.08ra
3. ONCE	8.34era
4. Kelme	13.39ra
5. Clas	18.55era

Euskal Bizikleta

Sari Nagusia



kutxa